

Kutxabank Pus 3, Pentsio Fondoa

Inbertsio-politika

I) PENSIO FONDOEI BURUZKO ARGIBIDE OROKORRAK

Pentsio Plan eta Fondoaren arautegiaren arabera, inbertsio-politikaren oinarriak dauzkan aitorten baten bidez idatzita agertuko dira.

Inbertsio-politika edozein izanda ere, Pentsio Fondoetan egindako inbertsioak, merkatuaren gorabeheren eta baloreetan inbertitzeak dakartzen beste arrisku batzuen mendekoak dira. Beraz, partaideak jakin behar du partaidetzen likidazio-balioak gora nahiz behera egin dezakeela.

Fondoaren zorroaren osaera zehatza seihileko txostenetan aztertu ahal da.

II) PENSIO FONDOA IDENTIFIKATZEKO DATUAK.

Kudeatzailea: KUTXABANK PENSIONES, S.A.U.

Gordailuzaina: CECABANK, S.A.

III) PENSIO FONDOEN INBERTSIO POLITIKA

a) Fondoaren ezaugarriak:

Fondoa Errenta Finkokoa da.

b) Kudeaketaren helburua

Fondoaren inbertsio-politika, alde zuzeneko ezarritako epemuga batean, partaidetza bakoitzerako balio jakin bat lortzera bideratuta egongo da. Edonola ere, partaideak eskuratuko duen errentagarritasuna, partaidetza bakoitzagatik harpidetutako balio likidagarriaren araberkoa izango da.

c) Inbertsioak aukeratu eta banatzeko irizpideak:

Fondoak bere ondare gehiena izaera publiko zein pribatua duten errenta finkoko tituluetan inbertituko du. Gainera, aitortutako kaudimena duten Europar Batasuneko jaulkitzaileek igorritakoak izan behar dute.

Fondoaren ondarea osatzen duten errenta finkoko tituluek Europar Batasuneko herrialdeetako merkatu antolatuetan kotizatuko dute.

Errenta finkoko aktiboen kokapen estrategikoa egingo da, kudeaketaren helburuarekin bat datorrena.

Ahal den eta egokitzat jotzen duten guztietan, Fondoak bere ondarearen zati bat hurrengo eragileek jaulkitako baloreetan inbertituko du: Europar Batasuneko Estatu kideak; Autonomia Erkidegoak; Espainia kide duten Nazioarteko Erakundeak; eta ELGAko kideak diren beste Estatuak.

d) Inbertsioei lotutako arriskuak neurtzeko eta kontrolatzeko metodoak:

Errenta finkoko zorroa osatuko duten tituluek gutxienez *investment grade* ratinga duten edo, txikiagoa izanez gero, Espainako Erresumaren ratinga duten erakundeek jaulkitakoak izango dira. Edonola ere, dagokion aktiboa eskuratu ondorengo ratingaren aldaketek ez dakarte hura saldu behar izatea.

Horrez gain, ezarritako rating txikiagoa duten tituluek eskuratu daitezke, betiere kaudimenari buruzko baldintzen arautegia betetzen bada eta indarreko mugekin bat badator. Gainera, aktibo hauen azken posizioak ez du Planaren zorroaren %10a gaindituko.

Erakunde kudeatzaileak eta gordailuzainak fondoaren inbertsioen ratinga nahiz arrisku diferentzialen edo *spread* deiturikoen bilakaera erregulartasunez kontrolatuko ditu.

Errenta finkoko aktiboetan inbertitzeak interes-tasengatik arriskua dakar.

e) Kutxabank Plus 3, Pentsio Planaren partaideentzat Aurreikusitako urteko Errentagarritasun-helburua

Kutxabank Plus 3 Planaren bermatu gabeko errentagarritasun-helburua, erabakitako epearen amaieran (2020ko urriaren 30ean), epe horren hasierako (2013ko irailaren 27an) partaidetzak zuen balioaren gaineko %25,47ko (UTB %3,25) irabazia lortzera bideratutako inbertsio-politika garatzearen emaitza izango da.

f) Inbertsio-politikaren indarraldia.

Inbertsio-printzipioen adierazpen hau 2020ko martxoaren 20tik aurrera aplikatuko da.